

ITXAROPENAREN AURKAKO KOLPEA

Armada buruzagi talde batek, zenbait talde politikoren (karlista eta falangistak, gehien bat) eta erlijiosoren laguntzarekin, horien artean eliza katolikoaren gehiengoa, 1936ko uztailaren 18ko estatu kolpea antolatu zuen. Bere helburua ez zen izan gerra zibil bat martxan jartzea, II Errepublikako urteetan (1931-1936) martxan jarritako erreforma eta ekimenak errotik moztuko zituen erregimen diktatorial bat ezartzea baizik.

Hala ere, herritarren eta ejertzitoaren sektore baten erresistentziak kolpea geldiarazi zuen zonalde askotan, gerra zibil luze bati hasiera emanez.

Militar altxatuek langileriaren antolaketa eta eskubideak zapuztu nahi izan zituzten, eta horiekin batera lurraren jabetza erreformatzeko saioak. Beldur ziren Eliza eta ejertzitoari beren pribilegioak kentzen zizkien legediaren aurrean, eta emakumeek urte horietan irabazitako espazio zein rol berriak ez zituzten bat ere begi onez ikusten.

Aldi berean, autonomia estatutu berriekin, edota euskara, galegoa zein katalanaren aurrerapenaren aurrean beldur ziren zentralista amorratuak. Izan ere, alfabetizazioaren hedapena eta ekimen kultural berriak herritarrak isilik eta menperaturik mantentzeko oztopoak ziren.



Ekintza zibila Erriberri, 1936
Lapurrea: Buzkaja, Villar Palas



Irufeko lehenbiziko ikastola, 1931
Iturri: Ministerio Instrukzio eta Ensenanza. Fundacion y Rada (coord.), Eliza, las escuelas en la historia de Pamplona, 1998. Argit. Txalaparta Uztia

Testigantzak



Félix Padín

(BOST 38, Bilbo, Bizkaia)

Guretzat sindikatua bazen eskola, etxea... han irakurtzen, idazten eta kontuak egiten ikasten zenuen, denetarik egiten zen. Gerra baino lehen, ateneoa egin genuen eta esperanto klaseak ematen ziren, esperantoarekin bueltaka ibiltzen baitzen, hori eta nudismoa non-nahi ematen ziren Errepublikan. Bilbon zelaietan egoten zinen eta mundu guztia biluzik zegoen, emakumeak, gizonak, denok elkarrekin!, eta gero Francorekin... jantzi gintuzten!



Domingo Martínez

(BOST 6, Galdak, Bizkaia)

Esklaboak, horregatik etorri zen gerra, kapitalagatik eta lanagatik. Lanak bere eskubideak nahi zituen, eta kapitalak esklabotza nahi zuen.



Rosario Sánchez, "Dinamitera"

Kolpistek ez gintuzten zigortu soilik uztailaren 18an armekin bat ez egiteagatik, baizik eta estatu osoko emakumeentzat zein gizonentzat benetako demokrazia politika, soziala eta kulturala ezarri nahi izateagatik; elizak kontrolatzen ez zuten hezkuntza laikoa sortu nahi izateagatik, eliza baitzen milaka pertsonen atzerapen intelektualearen erruduna, ugazaben eta kazikeen gehiegizko boterea izateko beharrezkoak ziren ideiak eta beldurra zabaltzearen erantzulea... Besteak beste, emakumezkoaren boto eskubidea lortu izana zigortu nahi zuten, dibortzioaren eskubidea, ezkontza zibilen eskubidea, denontzako hezkuntza zabaldu nahi izatea, menpeko pertsonak ez, baizik eta pertsona libreak eta kritikako sortuko zituena...

2007ko martxoaren 11an, Ahaztuak 1936-1977 taldeak Zornotzako kartzelan preso egon ziren emakumei eginko omenaldian irakurrita.

Beste aipamenik ezean, panel honetan zein besteetan agertzen diren testigantzak F. Mendiolak eta E. Beaumontek idatzitako *Esklavos del Franquismo en el Pirineo* liburuan agertzen dira, Txalaparta argitaletxeak 2006an argitaratuen.

ESKLABOTZA FRANKISMOAN: ERREPIDEAK ETA FORTIFIKAZIOAK MENDEBALDEKO PIRINIOAN

1. Esklabotza sare zabalak

